

GURE PROIEKTUA

1. IDEIA

Ikasleentzako sare sozial berria.

2. ZERGATIK HAUTATU DUZUE?

Prestakuntza sakonagoa lortzeko baliabideak ematen dituen sare sozial bat aukera paregabea iruditu zaigu. Betidanik, institutuetan edo edozein titulua prestatzeko zentroetan eskaintzen dituzten baliabideak nahikoak ez direnez, etxean informazio gehiago eskuratu nahi dute ikasleek. Ikasleei egin behar duten lan extra hori errezteko, sare sozial hau sortzea bururatu zaigu.

Horrez gain, gure gizartearen kultura hobetzeko aukera ona iruditzen zaigu. Gazteen artean batez ere oso zabaldua dago sare sozialen erabilera eta honek aislamendua eta ezjankitasuna eragiten du. Horren bidez, gazteen intereseko gaiak lantzen dira modu errez, arin eta eraginkorrean.

Nahiz eta interneten apunteen web-orriak egon; hala nola, “el rincón del vago” edo “Wuolah” bezalakoak, gure proiektuak horiekiko desberdintasun asko izango ditu eta, gainera, halako web-orriak eskaintzen ez dituzten aukerak ere emango dizkio erabiltzaileari. Hona hemen adibide bat:

Guk interneten biologiako selektibitate apunteak aurkitu nahi baditugu, normalean hitz gakoak erabiltzen ditugu guk nahi dugun informazioa eskuratzeko:



selectividad apuntes biología



Interneten informazioa hitz-gako horiek bilatzailean idatziz eskuratzen dugunean, web-gune askotara sartzeko aukera izango dugu. Hala ere, web-gune horiek oso orokorrak izan daitezke; izan ere, ez dira izango espezifikoak guk nahi dugun informazioaren inguruan.

selectividad apuntes biologia

Todas Imágenes Vídeos Más Configuraciones Herramientas

Aproximadamente 220.000 resultados (0,40 segundos)

www.clasesalacarta.com ›descargas› apu ... ▾ Volver a esta pagina
Notas 2º Biología de Bach - Clases a la carta
Apuntes de **Biología** 2º Bachillerato.

sites.google.com ›sitio› inicio ›notas ▾ Volver a esta pagina
Apuntes - Biología (escuela Mater Purissima - Madrid)
Área de descarga de **apuntes** , ejercicios de **selectividad** y presentaciones en clase de la asignatura de **Biología** de 2º Bachillerato (colegio Mater Purissima ...

bioygeo.manuelgvs.com ›ApuntesBio2 ▾ Volver a esta pagina
Biología 2º Bach - Notas
Tema 1: Bioelementos y biomoléculas inorgánicas. Esquema · **Notas** · Tema 2: Carbohidratos. Esquema · **Notas** · Tema 3: Lípidos. Esquema · **Notas** · Tema 4: ...

www.wuolah.com ›notas-de- Biología2 ▾ Volver a esta pagina
Notas de la asignatura Biología - Wuolah
Notas - Proteínas y enzimas. -, insert_emoticon ... **Notas** - UNIDAD 5 - ÁCIDOS NUCLEICOS. -, insert_emoticon ... Ejercicios - Ejercicios **EBAU BIOLOGY** .

www.wuolah.com › BIOLOGÍA -notas ... ▾ Volver a esta pagina
Apuntes de la asignatura BIOLOGÍA 2º BACHILLERATO

Argazki horretan ikus dezakegu nola gure hitz-gakoen bitartez ez dira bakarrik selektibitateko apunteak agertzen, baizik ete beste instituto batzuetan kurtsoan zehar egindako apunteak, beraz, ez dugu espezifikoki nahi genuena lortu. Gainera, hautaketa-prozesu bat egin beharko dugu web-gune batera edo beste batera sartzeko eta prozesu askoz ere motelagoa eta luzeagoa izango da.

Gure App berriaren bezeroek, berriz, hashtag bidez bilatuko dute informazioa eta horrela nahi dutena modu zuzenago eta azkarrago batean lortzeko aukera izango dute. Egia da hautaketa prozesua ere egin beharko dutela, baina interneten ez bezala, ez da egongo egokia ez den aukerarik. Izan ere, aukera guztiak baliagarriak izango direnez, horiek konparatu ahal izango ditugu zehatzena aukeratzeko edo informazioa konbinatzeko.

Horrez gain, orain arte ezagutzen ditugun sare sozialak, denbora igartzeko, gauza berriak ikusteko edota beste pertsona batzuen bizitzaz jakiteko zuzenduak daude. Gurea ordea, Ikasketetarako beharrezko informazioa zuzenean aurkitzeko balio du, ez dago denbora pasatzeko pentsatua. Gaur egungo ikasleonek arazo mugikorrek asko despistatzen gabela da; app honetan ez dugu denbora galduko, bertan inbertitutako denbora gure probetxurako izango baita (ez denbora pasa).

Era honetan, gazteen arteko harreman desberdinak eratuko ditugu. Askotan gure artean askoz hobeto ulertzen gara, beraz hori, abaintaila handia izango da. Gure artean informazioa partekatze ahalmena egongo da.

3. NONDIK ETORRIKO DIRA DIRU SARRERAK?

Iragarkietatik; gehien bat, akademia edota irakazkuntzako erakundeetakoak.

Diru-sarreraren estimazio bat egiteko Instagram eta beste sare-sozial batzuek datuak bilduko ditugu. Azken batean, maila horretako sare-sozial bat sortu nahi dugu eta. Hauek dira aurkitu ditugun datuak:

Enpresa teknologiko asko negozio-eredu zehatz bat izan gabe sortzen dira. Hori da, hain zuzen ere sare-sozialen kasua: hasieran garrantzitsuena erabiltzaile bolumen handia lortzea da, gero bolumen horri etekina nola atera pentsatu ahal izateko eta negozio-eredu zehatz bat eratzeko.

Beraz esan dezakegu guk sortuko dugun sare sozialaren klabea horren hazte-prozesuan eta haren “engagementean” egongo dela. Hau da, erabiltzaileak sare-sozialean igaroko duten denbora diru-sarreraren kopuruan aldaketak eragingo dituzte. Gure diru-sarrerak iragarkietatik eta marketingetik lortuko ditugu.

Aipatu berri dugunez, sare-sozialen inbertsoreen balore nagusia sarea osatzen duten milioika erabiltzaileak dira. Hala ere, sare-soziala arrakasta izaten hasten denean, negozio-eredua aldaketak ahal izango ditu.

Diru-sarreraren kudeaketa:

Hasieran sare-sozialak ez ditu erabiltzaile askorik izango, jendea ez du ezagutuko eta. Beraz, diru-sarreraren kopurua oso txikia izango denez, diru laguntzak edo maileguak eskatu beharko ditugu. Kontratatu ditugun pertsonen kopurua proportzionala izango da erabiltzaile kopuruarekin eta, beraz, sare sozialaren bolumenarekin. Horrekin esan nahi dugu, sare-soziala sortu berri denean langile kopuru oso txikia izango dugula, informatikoak besterik ez, alegia.

Geroago, sare-sozialaren arrakasta handitu ahala, erabiltzaileen kopurua handiagoa izango da eta, beraz, diru sarrerak ere handituko dira. Kopuru batzuk estimatzeko sare-sozial (handiagoena) batenak erabiliko ditugu:

Twitterren kasuan, 320 milioi erabiltzaile inguru erabiltzen dute sare-soziala eta 720 milioi dolar inguru ingresatzen ditu. Horietatik, 79 milioi dolar datuen banaketari eta salketari dagokie.

Argi dago Twitter sareak erabiltzaile asko dituela eta gure enpresak denbora asko behar izango duela erabiltzaile kopuru horretara heltzeko; hala ere, horrekiko proportzionala den kopuru bat estimatuko dugu, beti kontuan izanda hasiera batean erabiltzaile kopurua nulua izango dela:

	ERABILTZAILE KOPURUA	DIRU-SARRERAK
TWITER	320 milioi	720 milioi
Estimazioa (3 hilabete igaro ondoren)	3000	6750

Diru horrekin langileei ordaintzeko gaitasuna izango dugu; lehenengo langile-kopurua oso txikia izango da eta. Espero dugu gure sare-sozialaren erabiltzaile-kopurua denborarekin ESPONENTZIALKI handitzea, beraz, denbora pasa ahala gero eta diru-sarrera gehiago izango ditugu.

Diru-sarrera horiek handitu ahala maileguak bueltatuko ditugu eta lehenengo etekinak aterako ditugu. Zenbat eta arrakasta handiagoa izan gure sare-sozialak, gero eta langile gehiago kontratatu beharko ditugu; aldi berean, soldata horiek ordaintzeko baliabide gehiago esango ditugu.

Informazio gehiagorako:

<https://www.larazon.es/economia/asi-ganan-dinero-las-redes-sociales-FC14700849/>

4. DESKRIBATU PRODUKTUA EDO ZERBITZUA (xehetasunez).


Honako ezaugarri hauek izango ditu:



- Alde batetik, sare sozial baten itxura izango du; hau da, ez da web-orri sinplea izango lehen aipatutako besteak bezala. Horrek esan nahi du parte hartzeko, pertsona horrek erabiltzaile bat sortu behar duela eta bere profilerak igoko dituen material guztiak bere izenean geldituko direla.
- Hashtag-bidez funtzionatuko du; adibidez, biologiako apunteak edo biologiako azalpenak aurkitzeko hashtag-bilatzailean (aplikazioaren bilatzeko atalean) #biologia, #biologiasselectividad, #biologialipidoak... jartzearekin nahikoa izango da. Honek duen abantaila da beste web-gune batzuekin konparatuta askoz errezagoa izango dela nahi dugun informazioa aurkitzea. Askotan, interneteko bilatzailean lortu nahi dugun informazioa eskuratzeko jartzen ditugun hitz gakoak ez digute zuzenean nahi dugun horretara bidaltzen.
- Atal ezberdinak izango ditu eta garrantzitsuenetariko bat, selektibitatez zuzenduta egongo da. Hor, urteetan zehar egon diren selektibitateko azterketa guztiak pilatu, atalka eta arloka multzokatuta eta banatuta egongo dira, emaitzekin. Atal horretako zerbitzuetako bat, azterketak automatikoki eratzea izango da, urte ezberdinetako ariketak nahastu egingo dituena.

- Nahiz eta informazioa edonork igo dezakeen, fidagarria izango da konprobatuko duten begiratzaileak egongo dira eta.
- Twitter instagram eta facebook antzeko sare soziala izango da, egitura antzekoarekin, baina gureak beste erabilpen bat izango du:

BESTE SS.SS. BATZUK	GUREA
Edozein pertsonak, erabiltzaile bat badu, nahi duena argitaratu dezake.	Hemen ere hori posiblea izango da baldin eta ikasketen iguruan baden.
jende edo hashtag-ak bilatzeko sekzioa, jarraitutako erabiltzaileen argitalpen berriak ikusteko sekzioa...etb dute	gureak ere egitura berbera izango du baina informazio arlo bat ere izango du.

- Diseinua Instagram-enaren antzekoa izango litzateke: Hemen hasierako ideia bat (atal ugari falta zaizkigu, baina gutxi gora beherako eredu bat da).





5. NORTZUK IZANGO DIRA BEZEROAK?

Batez ere batxillergoko bigarren mailako ikasleei zuzenduta egongo da baina edozein maila zein adineko pertsonek erabil dezakete.

6. NORTZUK IZANGO DIRA LANGILEAK?

Hainbat materiako jakitunak (irakasleak, filologoak, graduatuak, ikasketadunak...) izango dira informazioa egia den a la ez ziurtatuko dutenak. Informatikoak ere egongo dira; aplikazioa sortzeko eta antolatzeko. Diseinua, diseinatzaile grafiko bat egingo du.

7. ZEIN DA BEHAR DUZUEN INFORMAZIOA PROIEKTUA LANTZEKO?

Sare sozialak eskainiko duen informazio guztia bilatu eta multzokatu beharko dugu.